



HEZKUNTZA IKUSKARITZAKO URTEKO PLANA

2004-2005eko IKASTURTEA

1. SARRERA

2004-2005eko Ikuskaritza Plan honek, Hezkuntza Sailburuordeak 2002ko urriaren 7an emandako Ebazpenaren bidez onartu zen Hezkuntza Ikuskaritzako Hiru Urteko Plan Orokorren azkena da. Izan ere, hiru urteko plan horrek EAEko Ikuskaritzaren helburu orokorrak eta lan-ildo nagusiak zehazten ditu 2002-2005eko aldirako.

Ihazko Plana jarraituz, Planeko Jarduera Estrategikoak izeneko atala du. Atal honek Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzua etengabe hobetzeko prozesua garatzea du helburu. Izan ere, prozesu hori joan den ikasturtean hasi zen, Ikuskaritzaren funtzioa definituz.

Bestalde, ikasturtean zehar egin behar diren jarduerak edo azpiprozesuek oraindik ere Planaren ardatz nagusia osatzen dute. Jarduera horietako asko Ikuskaritzak ikastetxeekiko eta Administrazioarekiko harremanetan aurrera eramaten dituenak dira. Badira ere ikasturte honetan lehentasunezko azpiprozesu batzuk. Horrela, Hezkuntza Sailak dituen programa batzuk kontrolatzea eta ebaluatzea: Ikasle etorkinen eskolarizazioa, Haur Hezkuntza, Berriztapen Proiektuak, etab, eta baita ere ikastetxeen akademiko eta administrazio-agiriak kontrolatzea, derrigorrezko irakaskuntzako ikasleen eskola huts egitea kontrolatzea, Kalitatea Gestionatzeko Sistema (KGS) ebaluatzea Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxetan eta Euskalit-en aldetik kanpoko ebaluazio-prozesu bat izan behar duten LHko ikastetxeetako ebaluazio-taldeetan parte hartzea.

Aurreko ikasturtean bezalaxe, Plan honek ondorengo atalak sartzen ditu: Ikuskaritzarako aurreikusitako erakunde-prestakuntza, plantilaren euskalduntzea hobetzearekin lotutako programa, antolakuntza-alderdirik nabarmenenak eta Planaren beraren ebaluazioari buruzko atal bat, barne eta kanpoko.

Ondorengo ataletan egituratzen da 2004-2005eko ikasturterako Urteko Plan hau:

- Planaren jarduera estrategikoak.
- Zehaztea ikasturte honetan gauzatzeko aukeratutako prozesuak aplikatzeko era.
- Aurreikusitako erakunde-prestakuntza.
- Euskalduntzea.
- Antolakuntza-alderdiak.
- Urteko Planaren ebaluazioa.

2. PLANAREN JARDUERA ESTRATEGIKOAK

2004-05 ikasturterako jarduera estrategikoak iazko ikasturtean hasitako jarraiak dira eta 2002-03 ikasturtean Ikuskaritzan hasi zen Plangintza Estrategikorako Prozesuan oinarritzen dira. Garrantzitsua denez, nahiz eta iazko Planean ere honi buruz aipamena egin, komenigarria ikusten da berriro ere Ikuskaritzako Eginkizuna, Estrategiak eta Helburu Estrategikoak azaltzea. Laburbilduz horrela formulatu zen:

EGINKIZUNA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ikuskaritzak ondorengo eginkizunak ditu:

- Indarreko legeria nola betetzen den kontrolatu eta horretarako aholku eta informazioa ematea.
- Ikastetxeak eta beren emaitzak ebaluatzea.
- Eskola-elkarteko sektore desberdinen eskubideak bermatzea.
- Hezkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa ematea hezkuntza-administrazioari.
- Kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzen laguntzea.

BALOREAK

Helburu horrekin haren estrategiak, indarreko planak eta gure jokaeren eta jarrerren erreferentzia diren ondorengo baloreak garatzen ditu:

- Profesionaltasuna: autonomia, begirunea, zintzotasuna eta erantzukizuna.
- Elkarlana.
- Etengabe hobetzeko jarrera.
- Eskaerei arin erantzutea: eraginkortasuna.

IKUSPEGIA

Ikuskaritzak ondorengo helburuak ditu:

- Esleituta dituen funtzioak irizpide teknikoen arabera eta kanpoko presioak alde batera utziz egitea.
- Osatzen duten profesionalek prestakuntza eta informazio ona izatea eta beren gain hartzea etengabe eguneratzeko konpromisoa.
- Elkarlanean aritzea, era koordinatuan
- Ikastetxeak eraginkortasunez ebaluatzea.
- Hezkuntza-sistema hobetzeko prozesuan etorkizun-senez liderra izatea eta sor daitezkeen arazoei aurrea hartzea.
- Eskola-elkarteko partaide guztiek, batez ere ikasleek, kalitateko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea.
- Eskola-elkartearen begirunea eta gizarte-aitortza irabaztea.

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN ESTRATEGIAK

Ondorengo jarduerak egin beharko genituzke, Hezkuntza Ikuskaritza hobetzeko:

- Era planifikatuan, koordinatuan eta elkarlanean aritzea.
- Ikuskarrien etengabeko prestakuntzari laguntza ematea.
- Ikuskaritzako bezeroen beharrak ezagutu eta beroriei erantzuna ematea.
- Ikuskari guztien partaidetza sustatzea.
- Kanpoko eta barruko informazio-bideak hobetzea.
- Ikastetxeetara egiten diren bisitak kalitate handiagokoak izatea.
- Hezkuntza Sailaren beharrei erantzuna ematea.

Urteko Plan honen I. eranskinean zehazten da koadro osoa, estrategiak, helburu estrategiko, helburu, jarduera eta talde arduradunekin.

3. AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ERA ZEHAZTEA

2. eranskinean zehazten dira ikasturte honetan aurrera eraman behar diren Urteko Planaren azpiprozesu edo jarduerak, Hezkuntza-Administrazioko arduradunen eskariz egin behar diren beste jarduera batzuen kalterik gabe. Aipatutako eranskinean ondorengo atalak zehazten dira:

- Ikuskaritzak aurrera eraman beharreko azpiprozesua edo jarduera izendatzea.
- Aurrera eramateko aurreikusten den aldia.
- Azpiprozesuaren emaitza: txosten mota eta noiz eman den.
- Azpiprozesua aplikatzeko eremua: jarduerak egiten diren ikastetxe edo erakundeak.
- Azpiprozesua planifikatu eta programatzeaz arduratzen den talde edo pertsona.
- Ikastetxeetan eta beren jarduera-eremuetan ekintza hori aurrera eraman behar duten ikuskariak: zonaldea, lurraldea edo erkidegoa.

4. AURREIKUSITAKO ERAKUNDE-PRESTAKUNTZA

2004-05 ikasturterako Plan Orokorrean zehaztutako lehentasunak kontuan hartuta, aurrera eraman nahi da jarraian adierazten den erakunde-prestakuntza:

- Kalitate- eta etengabe hobetzeko programetako prestakuntza:
 - EFQM: Prestakuntza hori emango zaie sartu berriak diren ikuskariei.
 - ISO: Auditoretzen ereduari buruzko prestakuntza espezifikoa antolatuko da, KGSren eta Lanbide Heziketako auditoretzetan parte hartu behar duten ikuskarientzat.
- Hezkuntza legeriatik eratorritako arau- eta administrazio-alderdietan sakontzea:
 - MCDko Errege Dekretuak eta Oinarrizko Aginduak.
 - EAeko Dekretuak eta Aginduak.
 - Agiri akademiko eta administratiboak.
- Informatikako ikastaro espezializatuak: SPSS,...
- Haur Hezkuntzari buruzko prestakuntza espezifikoa.
 - Mintegi iraunkorra.
 - Gai honi buruz formakuntzazko jardunaldiak.

- Pertsonen kudeatzeari eta lidergoari buruzko prestakuntza espezifikoa Ikuskaritza Nagusia eta Lurralde eta Zonalde arduradunentzat.
- EDDaren programa informatikoari buruz prestakuntza berezia.
- Formakuntza jardunaldia Europako Programei buruz.
- Zuzenbide eta hezkuntzako alderdiei buruzko formakuntza.
 - Disziplina-espedienteak.
 - Erreklamazioak. Kasu bereziak aztertu.

Ikuskari Nagusiak erabakiko du nortzuek hartuko duten prestakuntza-ikastaro horietan parte, zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta. Gainera, informazio-bilerak egingo dira Ikuskaritzarako interesgarritzat jotzen diren gaiei buruz.

5. EUSKALDUNTZEA

Ikasturte honetan, Hezkuntza Sailak ondorengo liberazioak baimendu ditu euskarako ikastaroetara joateko, IRALE programaren barruan:

- Bizkaia: 5 ikuskari 2 orduko liberazioarekin arratsaldero, ikasturte osorako.

Bestalde, HE2 egiaztatu duten ikuskariekin beren euskara maila hobetzeko joan den ikasturtean hasi zen esperientzia, era positiboan baloratu dena, kontuan hartuta, antzeko ikastaro bat egingo da, hobekuntza batzuekin, helburu hori lortzeko asmoz.

Jarduera horiek guztiek euskarak arian-arian gero eta presentzia handiagoa izatea dute helburu, bai Ikuskaritzako txosten desberdinetan, bai, batez ere, Ikuskaritza Zerbitzuan egiten diren bileretan.

6. ANTOLAKUNTZA-ALDERDIAK

6.1. ZAINTZAK ETA KOORDINAZIO BILERAK

Hiru Urteko Plangintzan dagoen moduan, ikuskari bakoitzak zaintzako asteko egun bat egin beharko du gutxienez eta erreferentzizko ikastetxeei informatu behar zaie. Honen helburua ikastetxeei edota jendeari egoitzan arreta ematea da. Gainera, ikuskarien koordinazioa eta formakuntza ziurtatzeko, ostiralak gordeko dira ikuskariak egoitzetan egoteko edo bileretara joateko.

6.2. IKUSKARITZAREN BISITAK

Hiru Urteko Plangintzan ere aipatzen da ikastetxe bakoitzari urtean gutxienez hiru bisita egin behar zaiola. Bisita hauen artean garrantzia handia du ikasturtearen hasieran erreferentziako ikastetxe guztietan egin behar den hasierako bisita eta azken bisita, ikastetxearen egoera aztertu eta baloratzeko aukera eman eta azken txostena egiteko elementuak ematen dizkiguna.

Azpimarratu behar da ikastetxeen bisita planifikatzeak duen garrantzia eta egindako jarduerak, antzemandako arazoak eta egindako proposamenak zehazten dituzten aipamen eta txostenak ere idatzi behar dira.

Ikuskaritzak egindako bisiten erregistro gaurkotuak izan behar du zonalde bakoitzean, eta tokian-tokiko zonaldeburuak bere gain hartuko du erregistro horren jarraipena egitea. Horretarako, ikuskariak Ikuskaritza Nagusiak emandako ereduak erabiliko dute.

6.3. LAN-TALDE ETA BATZORDEAK

2002ko ekainaren 18ko Aginduak, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituenak, ezartzen dituen Lurraldearteko eta Lurralde Koordinaziorako Batzordeez gain, ondorengo lan-talde eta batzordeak funtzionatuko dute ere ikasturte honetan:

- **Kalitate-Batzordea**

Ondorengo ikuskariak: José Antonio Romero (koordinatzailea), Elías Salaberria, Jesús M^a Kortazar, Jose Ignacio Molinuevo eta Mercedes Hidalgo, osatuko dute lehen aipatutako aginduak 11. artikuluan aurreikusten duen batzorde hori.

Ikuskaritzak egindako jarduerak etengabe hobetu ahal izateko, Kalitate-Batzorde honek ondorengo ardurak izango ditu:

- Ikuskaritzako kalitate-sistema kudeatu eta koordinatzea.
- Ikuskaritza Plana aplikatzeko prozesuan sortutako agiriak onartu, kontrolatu eta antolatzea. Onartze hori ez da edukiari buruzkoa izango, ezarritako kudeaketa-sistemari begira lotzeko ikuspuntu formalari buruzkoa baizik.
- Talde desberdinei beren jarduerak garatzen aholkularitza ematea.
- Ikuskari Nagusiari helaraztea sistema aplikatzen proposatzen diren aldaketa eta jarduerak, aztertu eta, behar izanez gero, onartzeko asmoz.

- **Ikuskaritzaren bisitak eta barneko administrazio-antolaketa hobetzeko taldea**

Ikuskaritzako bisiten diseinua eta lurralde eta zonalde bakoitzean dagoen administrazio-antolaketa hobetzeko hasitako lanari jarraipena emateko asmoz, ikuskarien jarduerak planari, agiriaren kudeaketari, artxiboei, administrazio-lanari, ...etab. begira, eusten zaio Jesús Herce (arduraduna), José Manuel Pineda, Pedro Luis Rodríguez, José Andrés Sánchez eta Juan Antonio Altozano ikuskariak osatutako hobetze-taldeari.

- **Azpiprozesuetarako taldeak**

Ondorengo funtzioak izango dituzte Urteko Planeko azpiprozesuak planifikatzeaz arduratzen diren taldeak:

- Esleitutako azpiprozesua diseinatu eta planifikatzea.
- Azpiprozesua garatzeko behar diren jardute-argibideak eta agiriak hedatzea.
- Behar den txostena egitea, azpiprozesua bera nola egin den ebaluatuz eta hobetzeko egin daitezkeen jarduerak proposatuz.

Maila desberdinetan egituratzen dira Urteko Plan honetan zehaztutako azpiprozesuetarako taldeen koordinazioa eta ikuskapena, eta ondorengo ardurak zehaztuko dira haietako bakoitzerako:

- **Taldeetako Arduradunak:**
 - Taldeekin izan beharreko bilerak planifikatu eta programatzea, Ikuskaritza Nagusiari informazioa emanez.
 - Ikuskaritza Nagusiari proposatzea azpiprozesua aurrera eramateko erabili nahi diren plangintza eta metodologiaren diseinua, onartzeko.
 - Azpiprozesua aurrera eramateko ezarritako prozedura ikuskatzea.
 - Txostena egitearen ardura hartzea, taldeko gainontzeko partaideekin elkarlanean.
 - Egin den talde-lana baloratzea.
- **Zonalde Burutzak:**
 - Azpiprozesuak Zonalde bakoitzean aurrera nola eramaten diren ikuskatzea.
 - Lurralde Burutzari jakinaraztea azpiprozesua garatzea dela-eta Zonalde bakoitzean antzematen diren arazoak.
- **Lurralde Burutzak:**
 - Azpiprozesuak Lurralde bakoitzean aurrera nola eramaten diren ikuskatzea.
 - Ikuskari Nagusiari jakinaraztea azpiprozesua garatzea dela-eta Lurralde bakoitzean antzematen diren arazoak.
- **Ikuskaritza Nagusia:**
 - Talde desberdinetako partaide eta arduradunek ikasturtean egin beharreko azpiprozesu edo jarduerak zehaztea.
 - Lurralde Burutzei jakinaraztea talde desberdinek egin behar dituzten bileren egutegia.
 - Talde bakoitzeko arduradunek proposatutako plana onartzea edo aldaketak proposatzea.
 - Ikuskaritzako Planaren azpiprozesuak EAEn nola garatzen diren ikuskatzea.

7. URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA

Bezeroen beharrak ezagutzea funtsezko alderdietako bat da edozein erakunde hobetzeko prozesuan, horrela behar horiei erantzun hobea eman ahal izateko. Ikuskaritzak berak lehentasuna eman dio alderdi horri zerbitzua hobetzeko estrategiei buruz egin duen hausnarketan.

2003-04ko ikasturtean guztia bete ez den Urteko Planaren barne eta kanpo ebaluazioa planteatu zen. Horregatik 2004-05 ikasturterako lehentasunezko jarduera bezala planteatzen da. Planaren ebaluazioak, besteak beste, balio izan behar luke, bezeroen beharrak ezagutzeko, bai barnekoak, Ikuskaritza bera, eta kanpokoak, Hezkuntza Administrazioa eta ikastetxeak. Guzti hori dela eta, ondorengo Planaren ebaluazio-prozesua mantentzen da:

- **Barne ebaluazioa**

Ondorengo mailetan gauzatuko da:

- **Banakakoa**
Ikuskariek, Ikuskaritza Nagusiak proposatutako galdekizun baten bidez, Urteko Planeko lehentasunezko jarduerak nola egin diren baloratuko dute.

○ **Taldeak**

Talde eta batzorde desberdinetako arduradunek, txostenaren bidez, talde edo batzorde bakoitzak aurrera eramandako lana baloratuko dute.

○ **Burutzak**

Ikuskaritzako Lurralde Burutzak, Bizkai eta Gipuzkoako Zonalde Burutzen eta Arabako Lurralde Burutzaren Ondokoaren laguntzarekin, izango dira lurralde mailako jarduera-planak jarraitu eta ebaluatzearen arduradunak. Horregatik, ikasturtearen bukaeran, txosten bat egingo dute, eta han planaren helburuak zein mailatan bete diren, haien balorazioa eta hobetzeko proposamenak jotzen dituzten proposamenak jasoko dira.

○ **Ikuskaritza Nagusia**

Ikuskaritza Nagusia izango da helburu estrategikoetatik eratorritako jarduerak kontrolatu eta baloratzearen arduraduna. Gainera, Urteko Azken Memoria egingo du, aurreko mailetan jasotako balorazioak eta hobekuntza-proposamenak jasoz.

● **Kanpo ebaluazioa**

○ **Ikastetxeetako zuzendarien aldetik.**

Bezeroen beharrak ezagutu eta erantzuna emateko Ikuskaritzak duen talde arduradunak egindako galdekizun baten bidez, ikastetxe batzuetako zuzendariak baloratuko dituzte Ikuskaritzak haien ikastetxeetan egindako jarduerarik nagusienak.

○ **Hezkuntza Saileko arduradunen aldetik.**

Bezeroen beharrak ezagutu eta erantzuna emateko Ikuskaritzak duen talde arduradunak egindako galdekizun baten bidez, Ikuskaritzarekin elkarlanean jarduten duten Zerbitzu Zentraletako eta Lurralde Ordezkaritzetako arduradunek baloratuko dituzte Ikuskaritzak egindako jarduerak.

Vitoria-Gazteiz, 2004ko urriaren 5a

Ikuskari Nagusia



Izpta.: Juan Mª Aztiria

2004/05eko URTEKO PLANAREN 1. ERANSKINA

JARDUERA ESTRATEGIKOAK

| ESTRATEGIA | HELBURU ESTRATEGIKOA | URTEKO HELBURUA | JARDUERAK | TALDE ARDURADUNA |
|---|--|--|---|--|
| 1. Era planifikatuan, koordinatuan eta lankidetzan aritzea | Ikuskaritzako azpiprozesu guztiek gauzatzeko prozedura zehaztuta izan behar dute, ezarritako sistemaren arabera | Aukeratutako azpiprozesuen % 100ek beren prozedurak zehaztuta izan behar dituzte, ezarritako sistemaren arabera. | <ul style="list-style-type: none"> - Agiriak kudeatzeko sistema zehaztu eta onartzea. - Aukeratutako azpiprozesuen ekipoak beren diseinuaz arduratzen dira, ezarritako sistemaren arabera. | Kalitate-Batzordea |
| | Ikuskaritzako talde eta batzorde guztiek taldeen metodologian zehazten diren kalitatateko tresnen arabera antolatzen dute beren funtzionamendua. | Zonaldeko talde guztiek eta lurraldearteko batzordeak horretarako egiten diren kalitateko tresnen arabera antolatzen dute beren funtzionamendua. | <ul style="list-style-type: none"> - Taldeak antolatzeko kalitateko tresnak egitea: <i>Bileren funtzionamenduaren eskema.</i> <i>Deialdiaren eredia.</i> <i>Aktaren eredia.</i> <i>Autoebaluazioaren eredia.</i> | Kalitate-Batzordea |
| | Erreferentziako ikuskariaren "Gida" deritzon agiri batean jasotzen dira ikuskariek beren ikastetxeetan egin behar dituzte ohiko jarduerak. | Erreferentziako ikuskariaren Gida egitea. | <ul style="list-style-type: none"> - Erreferentziako ikuskariaren Gida egitea, 03-04ko ikasturteko esperientziatik abiatuta. | Ikuskaritzaren bisitak hobetzeko taldea |

| ESTRATEGIA | HELBURU ESTRATEGIKOA | URTEKO HELBURUA | JARDUERAK | TALDE ARDURADUNA |
|--|--|--|--|-----------------------------------|
| <p>2. Ikuskarrien etengabeko prestakuntza laguntzea</p> | <p>Urteko Planetan prestakuntza-plan bat zehazten da, eta plan horrek beren funtzioak behar bezala eta eraginkortasunez betetzeko gaitasunak ematen dizkie ikuskari guztiei.</p> | <p>KGSKo eta Kalifikazio-sistemari lotutako prestakuntzaren auditoretzetan parte hartzen duten ikuskari guztiek Kalitateko Auditoretzei eta ISO 9001:2000ri buruzko prestakuntza jasoko dute.</p> <p>0-3ko Haur Hezkuntzako ikastetxeak esleituta dituzten ikuskari guztiek 0-3ko Haur-Hezkuntzari buruzko prestakuntza espezifiko jasotzen dute.</p> <p>Ikuskariek parte hartuko dute Hezkuntzako legediaren arauak sakontzea helburu duten jardunaldi eta bilkuretan.</p> <p>Burutza guztiek, Ikuskaritza Nagusia, Lurralde Buruek eta Zonalde Buruek, parte hartuko dute pertsonen kudeaketa eta lidergoari buruzko formakuntzan.</p> | <p>– Kalitateko Auditoretzei eta ISO 9001:2000ri buruzko prestakuntza-jardueretan parte hartzea eta beroiek planifikatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kanpo ikastaroak. ▪ Kasu praktikoari buruz barneko formakuntza. <p>– 0-3ko Haur-Hezkuntzari buruzko jarduerak planifikatzea eta berorietan parte hartzea (Kanpoko ikastaroak eta mintegi iraukorra.</p> <p>- Hezkuntzako legediari buruzko jardunaldi eta bilkurak planifikatzea eta beraietan parte hartzea. (Barneko formakuntza eta idatzizko argibideak)</p> <p>Pertsonen kudeaketa eta lidergoari buruzko formakuntza saioa planifikatzea eta bertan parte hartzea.</p> | <p>Ikuskaritza Nagusia</p> |

| ESTRATEGIA | HELBURU ESTRATEGIKOA | URTEKO HELBURUA | JARDUERAK | TALDE ARDURADUNA |
|--|--|--|---|--|
| <p>3. Ikuskaritzako bezeroen beharrak ezagutu eta beroiei erantzuna ematea</p> <p>Hezkuntza Sailaren beharrei erantzuna ematea</p> | <p>Ikuskaritzak bere bezeroen, kanpokoak eta barrukoak (ikastetxeak, administrazioa...), beharrak ezagutu nahi ditu, eta ezagutza horretaz baliatzen da haien eskaerei hobeto erantzuteko eta zerbitzu profesionalagoa eskaini ahal izateko.</p> | <p>Ikuskaritzari ondorengo alderdiak ezagutzeko aukera emango dioten tresnak egitea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haien bezeroen beharrak. - Zein mailatan dauden pozik. - Zer espero duten Ikuskaritzatik. | <ul style="list-style-type: none"> - Behar diren tresnak egin eta baliozkotzea, Ikuskaritzak ondorengo alderdiak ezagutu ahal izateko: <ul style="list-style-type: none"> - Haien bezeroen beharrak. - Zein mailatan dauden pozik. - Zer espero duten Ikuskaritzatik. - Tresnak aplikatzea, plan honen 7. puntuan adierazten den legez. | <p>Ikuskaritza Nagusia. Eusebio Cadenas Ricardo de Juan Lourdes Isasa</p> |
| <p>4. Ikuskari guztien partaidetza bultzatzea</p> | <p>Ikuskariak, oro har, ardurak dituzte Ikuskaritzaren Urteko Planeko jarduerak egin eta ebaluatzeko orduan eta erabakiak hartzeko parte-hartzean eta hobekuntza-jarduerak proposatzen dituzte.</p> | <p>Ikuskarien % 50ek baino gehiago hartzen dute azpiprozesu-taldeetan parte.</p> <p>Ikuskarien % 10ek hobetzeko jarduerak proposatzen dituzte.</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Ikuskaritzako Plana egitea. Izan ere, ikuskarien % 10ek, gutxienez, hartzen dute azpiprozesu-taldeetan parte. - Iradokizunak eta hobetzeko proposamenak jasotzeko eredu bat diseinatu eta aplikatzea. | <p>Ikuskaritza Nagusia</p> |

| ESTRATEGIA | HELBURU ESTRATEGIKOA | URTEKO HELBURUA | JARDUERAK | TALDE ARDURADUNA |
|---|---|---|---|--|
| <p>5. Barne eta kanpoko informazio-bideak hobetzea</p> | <p>Ikuskaritzak barne eta kanpoko komunikazio-sistema bat du, bilkuren eta Intranet-en bidez, komunikatzeko tresna arrunta den aldetik.</p> | <p>Urteko Plana Ikuskaritza guztiari jakinaraztea.</p> <p>Lurraldearteko Batzordean hartutako akordio guztiak ikuskari guztiei helaraztea.</p> <p>Guztion interesekoak diren gaiak ikuskari guztiei jakinaraztea.</p> <p>Zonaldeko partaideen arteko komunikazioa bultzatzea.</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Urteko Plana Lurraldeka aurkeztea. - Lurraldearteko Batzordean hartutako akordioak ikuskari guztiei hedatzea. - Ikuskaritza Nagusiak informazio-oharrak egitea, ikuskarien artean zabaltzeko. - Barneko web orria prestatu eta hedatu. - Lurraldearteko Batzordearen eta zonaldeko taldeen aldizkako bilerak, hilean behin gutxienez. | <p>Ikuskaritza Nagusia</p> |
| <p>6. Ikastetxeetako bisiten kalitatea hobetzea</p> | <p>Ikuskariak orientabide eta argibideak dituzte ikastetxeetara egin beharreko bisitak planifikatu eta gauzatzeko, bisita horien helburuen arabera.</p> | <p>Aukeratutako azpiprozesuen % 100ek orientabide eta argibideak dituzte ikastetxea bisitatzeko.</p> <p>Ikuskarien %100ek hasierako eta azkeneko bisitak egingo dituzte ikastetxeetara ezarrita dagoen prozedura erabiliz.</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Lehentasunezko zat jotako azpiprozesuen taldeek ikastetxea bisitatzeko orientabide eta argibideak sartuko dituzte azpiprozesuaren garapenean. - Hasierako eta azkeneko bisitak egiteko orientabideak eta argibideak prestatu. - Ezarrita dagoen prozedura erabiliz bisitak egin. | <p>Kalitate-Batzordea.</p> <p>Ikuskaritzaren bisitak hobetzeko taldea.</p> |

2004/05eko URTEKO PLANAREN 2. ERANSKINA

2004/05eko IKUSKARITZA PLANEKO AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

PR 0201. Ikastetxeen ebaluazio eta auditoretza.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea. | Ikuskarien jardueraren eremua | Oharrak |
|---------|--|---------------------------------------|---------------------------|-----------------------|---|---------------------|---|--|-------------------------------|---|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0201 01 | LHko ikastetxe integralen sarea osatzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeen ebaluazioa. | 1. hiruhil. | --- | --- | Euskadi Saria lortu nahi duten LHko ikastetx. | J.A. Romero | --- | Ebaluatzaile-taldeko ikuskariak | EAE | Beste ebaluatzaile batzuekin Euskalit-ek zehaztutako taldeetan parte hartzea. |
| 0201 02 | Kalitatea Gestionatzeko Sistemaren (KGS) ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • KGSa lortu ez duten ikastetxeei auditoretza. • Jarraiako auditoretza. • KGSn hasten diren ikastetxe berriei jarraipena. | Abendua 3. hiruhil. 2. hiruhil. | Ik.txos | 12/20 6/20 3/30 | KGSn duten ikastetxe guztiak | Ikuskaritza Nagusia | R. de Juan M. Bonet J A Fernández | KGSn esperientzia duten ikuskariak eta beste berriak | EAE | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| 0201 04 | Kalifikazio-sistemari lotutako prestakuntzaren auditoretza. | Urria-maiatza | Ik.txos txostena EAE txos | 06/30 | Lagina | J.A. Romero | P. Bilbatua Jesús Mª Villa J.M. Kortazar E. Salaberria | Auditoretzeta n esperientzia duten ikuskariak | EAE | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |

PR 0202. Irakasleen ebaluazioa.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesua | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarien jardueraren eremua | Oharrak |
|--|---|-----------------|---------------|-------|----------------------|--------------|----------------|------------------------|-------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| Irakasle-eta zuzendaritza-funtzioen ebaluazioa: | | | | | | | | | | |
| 0202 04 | Berritzeguneen ebaluazioan parte hartzea. | Ikasturte osoan | EAE txos | 06/30 | Berritzegune guztiak | J.M. Aztiria | Lurraldeburuak | Lurraldeburuak | Lurraldea | |

PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarien jardueraren eremua | Oharrak |
|---|--|--------------------|-----------------------------------|-------|---|--------------------|---|----------------------------|-------------------------------|--|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| Hezkuntza-Berriztapenerako proiektuak: | | | | | | | | | | |
| 0203 04a | Onartutako proiektuen garapeneren eta aplikazioaren ebaluazioa. | 2. hiruhil. | Proi.txos Lur.txos EAE txos | 05/30 | Sailak zehaztutako proiektuak | Mertxe Hidalgo | L. Rojo Gemma del Río I. Larrinaga | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| 0203 04b | Amara Berrik ikastetxeei ematen dien aholkularitzaren jarraipena | 1. eta 2. hiruhil. | Ik. txos Lur.txos EAE txos | 05/30 | Amara Berrik ahokatzen dituen ikastetxeak | Mertxe Hidalgo | L. Rojo Gemma del Río I. Larrinaga | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| 0203 06 | Irakaskuntza eleanitzaren garapen eta aplikazioaren ebaluazioa. | 1. hiruhil. | Ik.txos | 12/20 | Baimendutako ikastetxeak | Javier Granja | Marina García K. Salterain M. Narbona J.M. Guillén | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | Esperientziako 1. ikasturtea Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |

PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarien jardura-eremua | Oharrak |
|--|---|------------------|----------------------------------|-----------------------|-------------------------------|--------------------|---|-----------------------------|---------------------------|--|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| Prestakuntza-programak: | | | | | | | | | | |
| 0203 07 | Sareko LHko ikastetxeetako prestakuntza-proiektuen kontrola. | Ikasturte osoan | Ik.txos | 06/15 | Lagina | Elías Salaberría | Koldo Arriaga Txema Oñate | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| Curriculum-aniztasuneko programak: | | | | | | | | | | |
| 0203 10 | Behin-behingo onartutako Curriculum-Aniztasuneko taldeen kontrola. | Urria | Ik.txos | 10/31 | Baimendutako talde guztiak | Javier Granja | M.Victoria García L Barrutia J.M. Guillén | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| Hezkuntzan Parte-Hartze Espezifikoko Programak: | | | | | | | | | | |
| 0203 12 | DBHko Hezkuntzan Parte-Hartze Espezifikoko Programen eskaerak baloratzea. | Ekaina-Uztaila | Ik.txos | 07/7 | Eskaera guztiak | Juana L. de Munain | M.Victoria García L Barrutia M Zarraonandia | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0203 13 | Onartutako Programak jarraitu eta kontrolatu. | 2. hiruh. | Ik. txos Lur.txos EAE txos | 3/30 | Onartuak dauden talde guztiak | Javier Granja | M.Victoria García L Barrutia M Zarraonandia | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| Escolatzeko programa osagarriak: | | | | | | | | | | |
| 0203 14 | DBHrako escolatzeko programa osagarriak eskatzearen balorazioa. | Eskaeren arabera | Banaka txos | Eskae raren arabe ra. | Eskaera guztiak | Lurraldeburuak | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |

PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarrien jardueraren eremua | Oharrak |
|--|--|-----------------|---------------------------------|-------|------------------------------|--------------------|--|-----------------------------|--------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0203 16 | Programa europearrak jarraitu eta kontrolatu | 2. hiruhi. | Banaka.txos | 3/15 | Lagina | Javier Granja | M. Narbona A. Anasagasti | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| Ikasle etorkinak eskolatzeko programak: | | | | | | | | | | |
| 0203 18a | Ikasle etorkinen eskolatzearen kontrola Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan. | Ikasturte osoa | Ik.txos Lur.txos EAE.txos | 06/18 | Eragindako ikastetxe guztiak | I. Tazón | R Fernández J.A. Rey D. Mazuela | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0203 18b | Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan dauden ikasle etorkinak eskolatzeko hizkuntz errefortzurako irakasleen jardura kontrolatu eta jarraitzea. | Ikasturte osoa | Ik.txos Lur.txos EAE.txos | 06/18 | Eragindako ikastetxe guztiak | I. Tazón | R Fernández J.A. Rey D. Mazuela | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0203 18c | Ikasle etorkinen eskolatzearen kontrola Helduen Heziketako ikastetxe publikoetan. | Ikasturte osoa. | Ik.txos Lur.txos EAE.txos | 06/18 | Eragindako ikastetxe guztiak | I. Tazón | R Fernández P.L.Rodríguez J.A. Rey D. Mazuela P. Carnicero D. Rabanal | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |

PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarrien jardueraren eremua | Oharrak |
|----------------------|--|----------------|---------------------------------|-------|--------------------------------|--------------------|---|----------------------------|--------------------------------|--|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| Haur-eskolak: | | | | | | | | | | |
| 0203 19 | Udaletako eskola-proiektuen balorazioa. | Urria | Proi.txos | 10/31 | Aurkeztutako proiektu guztiak | I. Cereceda | A. Uriarte J. Pérez A. Unamuno P. Valiente | Ikuskari arduraduna | EAE | |
| 0203 20 | Onartutako proiektuen jarraipena. | Ikasturte osoa | Ik.txos. | 06/30 | Baimendu-Tako proiektu guztiak | I. Cereceda | A. Uriarte J Pérez A Unamuno P.Valiente | Erreferentziako ikuskariak | EAE | |
| 0203 21 | 0-3 Haur Hezkuntzaren jarraipen eta kontrola. | Ikasturte osoa | Ik.txos Lur.txos EAE.txos | 06/30 | Baimendutako gela guztiak | I. Cereceda | A. Uriarte J Pérez A Unamuno P.Valiente | Erreferentziako ikuskariak | EAE | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| A eredia | | | | | | | | | | |
| 0203 22 | A ereduaren jarraipena eta kontrola: Arloak euskeraz ematen duten ikastetxeak. | Ikasturte osoa | Ik.txos Lur.txos EAE.txos | 06/30 | Onartuak dauden guztiak | J. Herce | J. López de Munain K.Totorikaguena | Erreferentziako ikuskariak | EAE | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz |

PR 0204. Arau kontrola.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarrien jardueraren eremua | Oharrak |
|--|---|----------------|--|----------------------------------|---------------------------|--------------------|--|----------------------------|--------------------------------|--|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua: | | | | | | | | | | |
| 0204 01 | EEDren arau kontrola | 1. hiruhil. | Ik. txos Zon txos Lur.txos EAE.txos | 11/30 11/30 12/10 12/20 | Ikastetxe guztiak | J. Herce | J Pérez J.A. Sánchez JA Ayucar | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| 0204 04a | A. Plastika eta Diseinuaren ikasketen EEDren arau kontrola. | 1. hiruhil | Ik. txos | 12/20 | Ematen duten ikas. | K. Arriaga | K. Arriaga Txema Oñate I. Erice | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 04b | Kirol ikasketen EEDren arau kontrola. | 1. hiruhil | Ik. txos | 12/20 | Ematen duten ikas. | Javier Granja | P.J. Romero Marina García J.M. Guillén | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 05 | Ikastetxeetako talde kopuruaren eta ikasleen kontrola. Egoerari buruzko txostena. | 1. hiruhil. | Ik. txos | Eskae raren arabe ra | Ikastetx. s/eskaera | --- | --- | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 06 | Ikastetxeetako dokumentazio akademiko-administratiboaren kontrola eta azterketa. | 1. hiruhil. | EAE.txos | 12/15 | Ikastetxe guztiak | Javier Granja | R. Fernández J.A. Altozano J.M. Pineda | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 07 | Irakasleen huts egiteen kontrola | Ikasturte osoa | Lur. txos | 07/18 | Ikastetxe publiko guztiak | --- | --- | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |

PR 0204. Arau kontrola.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emaidza | | Aplikazio- eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiproze- sua gauzatzea | Ikuskarien jarduera- eremua | Oharrak |
|---------|--|--------------------|-----------------------|-------------------------------|-------------------------|--------------------|--------|--------------------------------|-----------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0204 08 | Kide bakarreko eta anitzeko organoak aukeratzeko prozesuaren jarraipen eta kontrola. | 2. eta 3. hiruhil. | Lur. txos | 12/20 | Ikastetxe guztiak | Lurraldeburuak | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 09 | Ikastetxeetako eskola-egutegien jarraipen eta kontrola. | Ekaina | Ik. txos | 06/30 | Ikastetxe guztiak | Lurraldeburuak | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 10 | Ikasturtearen hasierako gorabeheren jarraipena | Iraila-urria | Ik. txos | 09/30 | Ikastetxe guztiak | Lurraldeburuak | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 11 | Itunpeko gelen kontrola. | 1. hiruhi. | Ik. txos | Eskae raren arabe ra | Ikastetx. s/eskaera. | Lurraldeburuak | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 14 | Eskolaketa-liburuen eskaera, erregistro eta banaketa. | 1. hiruhil. | Zon.txos Lur. txos | 12/20 | Ikastetxe guztiak | Lurraldeburuak | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |

PR 0204. Arau kontrola.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarier jardueraren eremua | Oharrak |
|--------------------|--|---|---|----------------------------------|---|---------------------|---|---|-------------------------------|--|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| Curriculum: | | | | | | | | | | |
| 0204 15 | Curriculum Halduen Hezkuntzan benetan ezarri den jarraitu eta kontrolatzea. | 1. eta 2. hiruhil. | Ik. txos Zon.txos Lur. txos EAE.txos | 12/28 03/07 03/21 06/30 | HHIko ikastegiko guztiak | J. Herce | P.L.Rodríguez D. Rabanal P. Carnicero | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 16 | Curriculum UOHEIn benetan ezartzen den jarraitu eta kontrolatzea. | 1. eta 2. hiruhil. | Ik. txos EAE.txos | 03/21 06/30 | UOHEIko ikastegi guztiak | J. Herce | P.L.Rodríguez D. Rabanal M. Saenz de Urturi P. Carnicero | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 17 | Programazio didaktikoak berrikustea. | Programazio laburtuaren fasea 1. hiruhil. Departamentua bisitatzeko fasea 2. hiruhil. | Ik. txos Ik. txos EAE. txos | 12/20 03/30 | DBH eta Batxilergoa dituzten ikastetxe guztiak. Lagina | Javier Granja | M.Vict. García M. Narbona E. Vélez Leo. Puente | Erreferentzia-ko ikuskariak Ikuskari espezialistak | Zonaldea Lurraldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| 0204 19 | Curriculum-egokitzapen esanguratsuen jarraipen eta kontrola | Ikasturte osoa | Ban.txos Lur. txos EAE txos | 05/30 | Proposamen guztiak | J. López de Muniain | A. Abrisqueta P. Peñacoba | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| 0204 20 | Halduen Hezkuntzako ikastegi publiko espezifikotako arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola. | Onartze-fasea: iraila-urria Jarraipen-eta ebaluazio-fasea: ekaina | Ik. txos EAE txos | 10/10 06/30 | Programa guztiak | J. Herce | P.L.Rodríguez D. Rabanal E. González P. Carnicero | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |

PR 0204. Arau kontrola.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarien jardueraren eremua | Oharrak |
|-------------------------------|--|----------------|---------------|--------------------|-----------------------------|--------------------|---------------------------|----------------------------|-------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| Irakasle eta ikasleak: | | | | | | | | | | |
| 0204 21 | Ikasleen eskubide eta betebeharreri buruzko araudia betetzen den kontrolatzea. | Ikasturte osoa | Noizbehintxos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 22 | Ikasleen zigor-espediten kontrola. | Ikasturte osoa | Noizbehintxos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 23 | Indarreko legeria betetzen den kontrolatzea, ikasleen ebaluazioari, kurtso-igarotzeari, titulazioari, onarpenari...begira. | Ikasturte osoa | Noizbehintxos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 24 | Maila desberdinetan dauden euskara-salbuespenen kontrola. | 1. hiruhil. | Ban.txos | 12/01 | Eskaera guztiak | M. Zarraonandia | C. Mediavilla Leo. Puente | Ikuskari arduradunak | Lurraldea | |
| 0204 25 | DBHko Graduatua emateko proposamenen kontrola | Ekainazuztaila | --- | --- | DBH duten ikastetxe guztiak | Lurraldeburuak | Zonaldeburuak | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |
| 0204 26 | Irakasleen titulazioen kontrola. | Ikasturte osoa | Ban.txos | Eskaeraren arabera | Eskaera guztiak | Lurraldeburuak | --- | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |

PR 0204. Arau kontrola.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarrien jardura-eremua | Oharrak |
|---------|--|-------------------|-----------------------|-------|--|-----------------------------|--|-----------------------------|----------------------------|--|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0204 27 | Ikasleen eskola huts egitearen kontrola. | Ikasturte osoa | Lur. txos EAE txos | 06/30 | L. H. eta DBH dituzten ikastetxe guztiak | I. Cereceda | J. Grisaleña L. Barrutia L. de Juan | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| 0204 28 | Ikasleen artean beldurraraztea eta tratu txarra ematearen kontrola eta jarraipena. | 1. eta 2. hiruhil | Lur. txos EAE txos | 03/30 | I. publiko eta pribatuen lagina | Juan M ^a Aztiria | J. Grisaleña Nile Arroita B. Manzarbeitia Lourdes Isasa | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |

PR 0205. Ikasleen emaitzen azterketa eta balorazioa.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarrien jardura-eremua | Oharrak |
|---------|--|------------------------|--------------------|----------------|-------------------|------------------------------|------------------------------------|------------------------------------|----------------------------|--|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0205 01 | Derrigorrezko irakaskuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko, ikasleen emaitzen trataera informatikoa, azterketa eta balorazioa. | Ekainaztaila | F txos EAE txos | 07/10 07/20 | Ikastetxe guztiak | Javier Granja J.A. Romero | J.A. Sánchez + zonalde arduradunak | Erreferentzia-ko ikuskariak --- | Zonaldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| 0205 02 | Derrigorrezko Irakaskuntzaren Ondoko, Batxilergoko eta Heziketa-Zikloetako, ikasleen emaitzen trataera informatikoa, azterketa eta balorazioa. | Ekainaztaila Iraila | F txos EAE txos | 20/07 30/09 | Ikastetxe guztiak | Javier Granja J.A. Romero | J.A. Sánchez + zonalde arduradunak | Erreferentzia-ko ikuskariak --- | Zonaldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |

PR 0206. Ikastetxeei eman beharreko aholkularitza

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarien jardueraren eremua | Oharrak |
|---------|---|----------------|-----------------|------|--------------------|--------------------|--------|-----------------------------|-------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0206 01 | OOGko edo Eskola Kontseiluko elkarbizitza-batzordeari aholkularitza ematea. | Ikasturte osoa | Noizbehin. txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0206 02 | Arreta ematea ikasleak ebaluatzeko prozedurak, alde pegagogiko eta administratiboei begira, zuzen gauzatzea dela-eta egindako erreklamazioei. | Ikasturte osoa | Noizbehin. txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0206 03 | Diziplina-zigorrak ondo tramitatzeko aholkularitza. | Ikasturte osoa | Noizbehin. txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0206 04 | Eskolaketa-liburuak, ebaluazio-aktak eta ikasketak-espeditentak bete eta zaintzeari buruzko aholkularitza. | Ikasturte osoa | Noizbehin. txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0206 05 | Curriculum-Proiektua, Urteko Plana eta Ikastetxeko Memoria egiteari buruzko aholkularitza. | Ikasturte osoa | Noizbehin. txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |

PR 0206. Ikastetxeei eman beharreko aholkularitza

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Eaitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarien jardueraren eremua | Oharrak |
|---------|--|----------------|-----------------|------|--------------------|--------------------|--------|-----------------------------|-------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0206 06 | Zuzendaritza-taldeeii aholkularitza ematea, kudeaketari lotutako gaiei buruzkoa. | Ikasturte osoa | Noizbehin. txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Erreferentzia-Ko ikuskariak | Zonaldea | |
| 0206 07 | Ikastetxeei aholkularitza ematea, Europako hezkuntza-programetan parte hartzeko. | Ikasturte osoa | Noizbehin. txos | --- | Eskaeraren arabera | | | Erreferentzia-ko ikuskariak | Zonaldea | |

PR 0207. Administrazioarekiko lankidetzan egin beharreko jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Eaitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarien jardueraren eremua | Oharrak |
|---------|--|----------------|---------------|------|--------------------|--------------------|--------|---|-------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0207 01 | Hezkuntza Saileko arduradunek: Sailburuak, Sailburuordeek, Zuzendariak eta Lurralde Ordezkariek, eskatutako txostenak. | Ikasturte osoa | Ban.txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | I nagusia + lurreldeburuak + Ikuskariak | EAE | |

PR 0207. Administrazioarekiko lankidetzan egin beharreko jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio- eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiproze- sua gauzatzea | Ikuskarien jarduer- eremua | Oharrak |
|---------|---|----------------|------------------|-------|----------------------|--------------------|--------|--------------------------------|----------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0207 02 | Euskadiko Eskola Kontseiluak eskatutako txostenak. | Ikasturte osoa | Ban.txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | I nagusia + lurraldeburua k | EAE | |
| 0207 03 | Arartekoak eskatutako txostenak. | Ikasturte osoa | Ban.txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | I nagusia + lurraldeburua k | EAE | |
| 0207 04 | Eusko Legebiltzarrak eskatutako txostenak. | Ikasturte osoa | Ban.txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | I nagusia + lurraldeburua k | EAE | |
| 0207 05 | Estatuko Goreneko Ikuskaritzak eskatutako txostenak. | Ikasturte osoa | Ban.txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | I nagusia + lurraldeburua k | EAE | |
| 0207 06 | Euskarazko argitalpen-proiektuak baimentzeko txostenak. | Ikasturte osoa | Ban.txos | 07/20 | Eskaeraren arabera | --- | --- | K Mujika | --- | |

PR 0207. Administrazioarekiko lankidetzan egin beharreko jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio- eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiproze- sua gauzatzea | Ikuskarien jarduera- eremua | Oharrak |
|---------|--|---------------------|---------------------|------|----------------------|--------------------|--------|----------------------------------|-----------------------------------|--|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0207 07 | Ikastetxe publikoetako irakasleei espedienteak irekitzea | Ikasturte osoa | Ban.txos | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Izendatutako ikuskaria | Lurraldea | Dokumentazioa kudeatzeko sistema erabiliz. |
| 0207 08 | Ondorengo eginkizunetarako osatutako batzordeetan parte hartzea: titulazioak, zerbitzu-eginkizunak, lehiaketa eta beste deialdi batzuetarako irakasleen merezimenduak barematzea, berriztapen-proiektuak, Bigarren Hezkuntzako Graduaturako proba libreak, etab. | Deialdiaren arabera | Deialdiaren arabera | --- | Deialdiaren arabera | --- | --- | Izendatutako ikuskariak | EAE | |
| 0207 09 | Atzerriko ikasleak eta gizarte maila ahuleko biztanleak eskolatzeko batzordeetan parte hartzea. | Eskaeraren arabera | Eskaeraren arabera | | Eskaeraren arabera | --- | --- | Zonaldeburuak eta Lurraldeburuak | Zonaldea | |
| 0207 10 | Ondorengo epaimahaietan parte hartzea: Bigarren Hezkuntzako Graduaturako proba libreak, Heziketa-Zikloetan sartzea, Unibertsitaterako sarbide-Probak, Batxilergoko Aparteko Sariak, etab. | Deialdiaren arabera | Deialdiaren arabera | --- | Deialdiaren arabera | --- | --- | Izendatutako ikuskariak | EAE | |

PR 0207. Administrazioarekiko lankidetzan egin beharreko jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Noiz egin | Emitza | | Aplikazio-eremua | Azpiprozesu-taldea | | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarrien jardueraren eremua | Oharrak |
|---|---|--------------------|---------------|-------|---------------------------|--------------------|--------|----------------------------|--------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | Arduraduna | Taldea | | | |
| 0207 12 | Ikastetxe publikoen plangintzan parte hartzea: ikasle taldeak, plantilak, LZ, etab. | Uztaila | --- | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Izendatutako ikuskariak | Lurraldea | |
| 0207 13 | Saileko Ebazpen eta Zirkularrak egiteko lanetan parte hartzea. | Eskaeraren arabera | --- | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | I nagusia | EAE | |
| 0207 14 | Unibersitatetako sarbide-probak koordinatu eta egiteko prozesuetan EHUrekin lankidetzan aritzea. | Ikasturte osoa | --- | --- | Izendapenaren arabera | --- | --- | Izendatutako ikuskariak | EAE | |
| 0207 15 | Ikastetxe publikoetan kide bakarreko organoak egiteko proposamena. | Ekaina | Ban.txos | 06/30 | Ikastetxe publiko guztiak | --- | --- | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |
| 0207 16 | Udal eta beste erakunde batzuekiko lankidetzan: Emakundea, Adin Txikikoen Fiskaltza, Sarean, Kalitate Agentzia, Foru Aldundiak, etab. | Eskaeraren arabera | --- | --- | Eskaeraren arabera | --- | --- | Izendatutako ikuskariak | EAE | |
| Hezkuntza-sistemaren ebaluazioan Ebaluaziorako Euskal Erakundearekin lankidetzan aritzea | | | | | | | | | | |
| 0207 17 | Hezkuntza-adierazleen euskal sistema bat ezartzea. | Ikasturte osoa | --- | --- | | --- | --- | M Hidalgo | EAE | |